

BAGABILTZA

LHK-CRLko euskara-planaren buletina. 1. zk. 2021eko otsaila.



Borja de la Sota

2021eko kudeaketa-plana



Lan Harremanen Kontseiluak euskararen erabilera normalizatzeko 2021eko kudeaketa-plana onartu berri du. Plan horren oinarrian gauza bi daude, 2020ko kudeaketa-plana eta LHK-ko langileek egindako ekarpenak. Plana

zehaztasunez ezagutu nahi duenak eskuragai dauka, Josu Arroyori eska diezaioke nahi duenean. Buletin honetan, Planaren nondik norako nagusiak aipatuko ditugu. Hemen dituzue ekintza-lerro nagusiak eta berrikuntzak.

Euskara Batzordean, otsailaren 3ko bileran, dagokion onespena eman eta gero, buletin honen bitartez jakinarazi nahi nizueke Lan Harremanen Kontseiluko zuzendaritzak bere babes osoa adierazten diola Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren barruan 2021 urterako egin den proposamenari.

Honek esan nahi du, besteak beste, aurtengo planean neurri jakin batzuek arduradun jakin batzuk izango dituztela, eta aldi-aldi neurketak egingo direla. Izendatutako arduradunek une oro gure normalkuntza-teknikariaren eta Elhuyarrekoko solaskidearen laguntza izango dute. Dena behar bezala koordinatuta egongo da.

Benetan eskertzekoa eta harrotzeko modukoa da Kontseiluko langile guztiok agertu duzuen prestutasuna. Zuek barik hau ez litzateke posible izango.

EKINTZA-LERRO NAGUSIAK

- Herritarrei zerbitzua euskaraz eman: harrera egiterakoan, eskabideei erantzuterakoan, bilerak egiterakoan, eta abar.
- Lantokiko komunikazio ofizialetan zein langileen arteko komunikazioetan euskararen erabilera sustatu, horretarako behar diren tresnak eskainita.
- Lan-bileretan euskararen erabilera sustatu, beharrezkoak diren jarraibideak emanda.
- PRECO lanerako darabilten aplikazioa berritu eta ele bitan lan egiteko egokitu.
- PRECOko bitartekari euskaldunak identifikatu eta bezeroei zerbitzua euskaraz eskaini.
- Laneko trebakuntza euskaraz ere eskaintzen jarraitu.
- Beste administrazio batzuekin ditugun harremanak euskaraz izatea sustatu.
- Euskararen ahozko erabilera, oro har, sustatu.
- Euskararen eguna ospatu, lankideen ahalegina eskertu eta ekarpenak jaso.

HIRU BERRIKUNTZA: 2020ko planarekin alderatuta, hiru berrikuntza txertatu ditugu:

- **Arduradunak:** kudeaketa-planak ekintza asko jasotzen ditu, eta horiek aurrera eramateko lanak banatzea hobetsi da. Honako lankide hauek hartu dute arduraren bat plana garatzeko: Borja de la Sota, Nerea Elgezabal, Javier González, Asier Aldaiturriaga, Mari Jose Rueda, Mari Jose Mojón, Laura Medrano, Jose Mari Álvarez, Kar-mele Etxagibel, Bego Pérez eta Josu Arroyo. Eskerrik asko guztioi! Gainerako langileon laguntza izango duzue zeren zereginak aurrera eramateko.
- **Komunikazioa:** buletin honen bidez jasoko duzue aldiro-aldiro kudeaketa-planaren berri. Dena dela, zehaztasun gehiago behar baduzue Josu Arroyorengana jo dezakezue nahi duzue.
- **Neurketak:** kudeaketa-planean jaso diren ekintzei segimendua egingo diegu. Hala, urte amaieran, plana zein neurritan bete den zehaztasunez jakingo dugu.